

23

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2026

23 - 30 apirila / abril



PROGRAMAZIOA / PROGRAMACIÓN

APIRILA / ABRIL

20	astelehena lunes	19:00		LA BUENA NUEVA <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	AZ
21	asteartea martes	19:00		EL CONSENTIMIENTO <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	AZ
22	asteazkena miércoles	19:00		BAKARRIZKETA / MONÓLOGO Humor negra <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	AZ
		19:00		MAHAI-INGURUA / MESA REDONDA La era Trump y sus consecuencias <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	VEA CLUB
23	osteguna jueves	16:30		PROMETIDO EL CIELO	VEA
		20:00	▲	INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN PALESTINE 36	VEA
24	ostirala viernes	16:30		ALLAH N'EST PAS OBLIGÉ	VEA
		19:00		URAK ASKE	TBK
		20:00	▲	EVERYBODY TO KENMURE STREET	VEA
25	larunbata sábado	12:00		ETXEKOAK <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	VEA CLUB
		16:30	●	IVÁN & HADOUM	VEA
		17:00	▲	Nazioarteko film laburren maratoia Maratón de cortometrajes internacionales	AZ
		20:00	▲	SUCIA	VEA
26	igandea domingo	12:00		HAURRENTZAKO ZINEMA / CINE INFANTIL IPUINAK LORATEGI MAGIKOTIK <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	VEA
		16:30		THE DISAPPEARANCE OF JOSEF MENGELE	VEA
		17:00	▲	Euskal film laburren maratoia Maratón de cortometrajes vascos	AZ
		20:00	▲	L'INTÉRÊT D'ADAM	VEA
27	astelehena lunes	16:30		À BRAS-LE-CORPS	VEA
		19:00	▲	MADE IN EU	VEA
28	asteartea martes	16:30		LUTXI ETA ZUHAITZA	VEA
		19:00	▲	3 días, 3 noches L'ENFANT BÉLIER	VEA
		19:00	▲	ALDAPA <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	AZ
29	asteazkena miércoles	16:30		GIRLS & GODS	VEA
		19:00	▲	Disonancia BLACK WATER	VEA
		19:00		MES PHANTÔMES ARMÉNIENS	TBK
30	osteguna jueves	16:30	▲ ●	BWANA <i>librea gonbidapenarekin / gratis con invitación</i>	VEA
		19:00		LA NOCHE ESTÁ MARCHÁNDOSE YA	TBK
		20:00	▲	BUKAERA / CLAUSURA REBUILDING	VEA

MAIATZA / MAYO

2	larunbata sábado	19:00		REDLIGHT TO LIMELIGHT	TBK
----------	---------------------	-------	--	------------------------------	------------

Sarrerak / Entradas: **5 €**

Tabakalera: **4,50 €**

Gonbidapenak / Invitaciones:

Victoria Eugenia Antzokia & Antzoki Zaharra

www.zinemaetagizaeskubideak.eus

■ **VEA** Victoria Eugenia Antzokia

■ **AZ** Antzoki Zaharra / Teatro Principal

■ **TBK** Tabakalera

▲ Pertsona gorrentzat gaztelaniazko azpititulu egokituak dituzten filmak eta zeinu hizkuntza zerbitzua duten solasaldiak
Sesiones con subtitulación accesible en castellano para personas sordas y coloquios con intérprete de lengua de signos

● Saioak audiodeskripzioarekin / Sesiones con audiodescripción (**AudescMobile**)

AURKEZPENEA

Beste udaberri batez, hemen dugu berriro Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia, gizakiak ekinean suntsitu nahian dabiltzan planeta honetako hainbat gertaera kontatzeko. Istorio mordoxka bat dira, asmotzat dutenak gerrek eta, bereziki, haiek probokatu eta onura ateratzen dietenek aztoratutako mundu honetan gertatzen ari diren gatazketako batzuk aztertzen eta argitzen saiatzea, aurtengo kartel ofizialaren zerua bezala iluntzen ari den mundu batean itxaropen pixka bat jartzeko ahaleginean.

Bakearen uso berria baliteke izatea ahoan olibondo-adar bati eusten dion dron bat, beharbada berri ona iragarriko duen gezurrezko mezularia, edo agian zerutik lurra eta pertsonak suntsitzen lagun dezakeena, euri beltza emakumeen eta gizonen arimen gainean etengabe erortzen ari den bitartean; txundituta begira ari diren bitartean gure egunerokoa bihurtu den suntsipenaren eta heriotzaren ikuskizun goibela.

Zinemaldiak mundu hobeago bat posible dela sinesten jarraitzen du. Antzoki Zaharreko eta Victoria Eugeniako pantailatan atzoko eta gaurko hainbat istorio agertuko dira, zeren eta, batzuetan, iraganak oraina ulertzeko eta hobetzeko balio baitezake, baita gero eta gertuago dugun etorkizun distopikoa saihesteko ere. Filmak eta erakusketak izango ditugu, munduan egunero gertatzen ari diren gatazketara hurbilduko gaituztenak, sen ona eta giza eskubideak berriz ere aintzat hartuak izango direlako itxaropenez.

Gure ustez, esperientziak partekatzeko ahalmen handiko tresna unibertsala da zinema. Aldarrikatu dezagun irudiek duten indarra, kontzientziatzeko, zirrara eragiteko, bihotzak ukitzeko... mundua aldatzeko. Salatzeko, atentzioa emateko, egunetik egunera gero eta mehatxatuago dauden giza eskubideen alde lan egiteko. Horretarako, hemen ditugu berriro zinema, argazkilaritza, marrazkia, baita umorea ere, eta urtero bezala, debateak zinemagile eta adituekin, gaurkotasuneko hainbat gairi heltzeko.

Donostiatik uste baitugu zazpigarren arteak mundua hobeto ezagutzen lagun dezakeela, leiho bat ireki ahal diela herritarrei, guztion artean zinemaldi hau beharrezkoa izan ez dadin lortzeko.

PRESENTACIÓN

El Festival de Cine y Derechos Humanos de Donostia vuelve otra primavera para contar un puñado de historias que suceden en el planeta que el ser humano se ha empeñado en destruir, para intentar analizar y dar algo de luz sobre algunos de los conflictos que se desarrollan en este mundo enloquecido por las guerras y especialmente por los que las provocan y se benefician de ellas, para tratar de poner algo de esperanza en un mundo que se oscurece como el cielo del cartel oficial de este año.

La nueva paloma de la paz quizá sea un dron que sostiene una rama de olivo en sus fauces, un falso mensajero que puede anunciar la buena nueva o quizá contribuir desde los cielos a la destrucción de tierras y personas, mientras la lluvia negra no cesa de caer sobre las almas de las mujeres y los hombres que asisten estupefactos a este espectáculo de destrucción y muerte en que se ha convertido nuestro día a día.

El Festival sigue pensando que un mundo mejor es posible. Se asomarán a las pantallas de los teatros Principal y Victoria Eugenia diversas historias de ayer y de hoy, porque a veces el pasado puede servir para entender y mejorar el presente y para evitar el distópico futuro que se aproxima. Películas y exposiciones que se acercarán a conflictos que suceden cada día en el mundo, con la esperanza de que el sentido común y los derechos humanos vuelvan a ser tenidos en consideración.

Como siempre, pensamos que el cine es una herramienta poderosa y universal para compartir experiencias. Reinvidicamos la fuerza de las imágenes para concienciar, conmover, emocionar... para cambiar el mundo. Para denunciar, llamar la atención, trabajar en favor de unos derechos humanos que no hay que dar por supuestos y que cada día se ven más amenazados. El cine y la fotografía, el dibujo, también el humor, cada año el debate con cineastas y especialistas en diversas temáticas de actualidad.

Porque desde Donostia creemos que el llamado séptimo arte puede contribuir a un mejor conocimiento del mundo, abrir una ventana a la ciudadanía para que entre todas y todos se pueda conseguir que este festival no sea necesario.

Jon Insausti Maisterrena
Donostiako alkatea

astehena / lunes > apirilak 20 abril / 19:00

Antzoki Zaharra / Teatro Principal

librea gonbidapenarekin / gratis con invitación

LA BUENA NUEVA (2008)

Helena Taberna. Espainia / España. 108 min

🔊 *gaztelania*

1936an, Gerra Zibilaren hasieran, sozialistek gobernatutako herri bateko parroko izendatu dute Miguel. Talde kolpistak herria okupatzen du eta laster hasten dira fusilamenduak. Miguel, errepresaliatuak defendatzeko borrokan, elizako hierarkia militarari aurre egin beharrean da, eta arriskuan jartzen du bere bizitza. Apaiz gazteak herriko maistrarekin duen adiskidetasunean aurkitzen du babesa; gatazkaren hasieran hil zuten haren senarra.



En 1936, al estallar la Guerra Civil, Miguel es nombrado párroco de un pueblo gobernado por socialistas. El bando golpista ocupa el pueblo y pronto se suceden los fusilamientos. En su lucha por defender a los represaliados, Miguel se enfrenta a la jerarquía eclesiástica y militar, poniendo en juego su propia vida. El joven sacerdote encuentra refugio en su amistad con la maestra del pueblo, cuyo marido ha sido asesinado al inicio de la contienda.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Paco Etxeberria: Lege eta Auzitegi medikuntzako mediku espezialista / *Médico especialista en Medicina Legal y Forense*

asteartea / martes > apirilak 21 abril / 19:00

Antzoki Zaharra / Teatro Principal

librea gonbidapenarekin / gratis con invitación

EL CONSENTIMIENTO (2023)

Vanessa Filho. Frantzia-Belgika / Francia-Bélgica. 119 min

🔊 *frantsesa* 🗣️ *gaztelania*

París, 1985. Vanessak hamahiru urte ditu Gabriel Matzneff ezagutzen duenean. Berrogeita hamar urteko idazle ospetsu bat da hau, oso gizon argia eta manipulazalea, eta seduzitu egiten du neska nerabea. Hala, mundu kulturalak eta politikoak goraipatutako gizon baten maitale eta musa bihurtzen da. Harreman horretan bere burua galtzen hasita, pixkanaka konturatzen da egoera zeharo suntsizale eta ezohiko batean sartuta dagoela, eta Matzneff benetakoa gizon depredadore bat dela jabetuko da azkenean.



París, 1985. Vanessa tiene trece años cuando conoce a Gabriel Matzneff. Un hombre muy inteligente y manipulador, el reconocido escritor de cincuenta años seduce a la joven. La adolescente se convierte en la amante y musa de un hombre celebrado por el mundo cultural y político. Perdiéndose en la relación, gradualmente comienza a darse cuenta de cuán destructiva y anormal es la situación, hasta que finalmente ve a Matzneff como el depredador que realmente es.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Gema Varona: Kriminologiaren Euskal Institutuko zuzendaria / *Directora del Instituto Vasco de Criminología*

Javier Gómez Zapiain: Biktimologiaren Euskal Elkartearen presidentea / *Presidente de la Sociedad Vasca de Victimología*

PROMETIDO EL CIELO

(*Promis le ciel*, 2025)

Erige Sehiri. Frantzia-Tunisia-Qatar / Francia-Túnez-Catar. 95 min

🎧 frantsesa, arabiera

🔊 euskara, gaztelania

Marie bolikostarrak, garai batean kazetari eta orain artzain, hamar urte daramatza Tunisian bizitzen. Bere etxea babesleku bat da Naneyrentzat, etorkizun hobeago baten bila dabilen ama gaztearentzat, eta Jolierentzat, bere familiak itxaropen guztiak jarrita dituen ikasle ausartarentzat. Neska umezurtz baten etorrerak proban jarriko du haien elkartasun sena tentsio handiko giro sozial batean, eta egoera horrek agerian utziko ditu haien zaurgarritasuna eta indarra.



© Maneki Films & Henia Production

Marie, antaño periodista y ahora pastora marfileña, lleva diez años viviendo en Túnez. Su hogar se convierte en un refugio para Naney, una joven madre en busca de un futuro mejor, y Jolie, una estudiante decidida en quien reposan las esperanzas de su familia. La llegada de una niña huérfana pone a prueba su sentido de la solidaridad en un clima social tenso, sacando a la luz tanto su fragilidad como su fortaleza.

SORORITATEA EMAKUME ERREFUXIATUEN ARTEAN: TUNISIA ISPILU GLOBAL GISA

Diskurtso politiko populista jakin batzuek Europara iristen diren errefuxiatuen “oldeaz” hitz egiten dute; ez dago halakorik, ordea. Munduan, gerragatik, jazarpenagatik edo indarkeriagatik beren etxea uztera behartutako 123 milioi pertsonatik, gehienak ez dira hona iristen: % 73 gutxi gorabehera inguruko herrialdeetan edo errenta baxuko estatuetan geratzen dira, GKE askok Hegoalde globala deitutakoan.

Boli Kostatik, Malitik eta mendebaldeko Afrikako beste herrialde batzuetatik ihes egin eta Tunisian ezartzen diren errefuxiatu askoren kasua da (ACNURen arabera, 2024an 16.000 baino gehiago erregistratu dira). Izan ere, Tunisia migrazioari eusteko Europako estrategiaren funtsezko pieza bihurtu da. 2023an EBk eta Tunisiako Gobernuak sinatutako akordioak mugen kontrola gogortzera eraman zuen, laguntza ekonomiko handien truke. Horren ondorioz, Saharaz hegoaldeko herritarren aurkako errepresio, eraso arrazista eta giza eskubideen urraketa gehiago gertatu ziren.

Testuinguru horretan, emakume migratzaile eta errefuxiatuek, Tunisian eta desplazatu diren gainerako herrialdeetan, indarkeria gehigarria jasaten dute emakume izateagatik, prekaritatearen, lan-esplotazioaren edo sexu-erasoen biktima bihurtzeraino. Horren aurrean, haien erantzuna behetik sortzen da: laguntza-sare informalak, etxebizitza partekatutako eta haien artean antolatutako elkarteak.

Euskadin ere, sororitate horrek babesleku gisa funtzionatzen du. Emakunderen *Emakume elkarten gidaren* arabera, gaur egun ehun elkarte baino gehiago daude lurraldean emakume migratuek bultzatuta, eta espazio horietan erresistentzia-modu bat da elkarri laguntzea.

SORORIDAD ENTRE MUJERES REFUGIADAS: TÚNEZ COMO ESPEJO GLOBAL

Mientras algunos discursos políticos populistas hablan de “avalancha” de personas refugiadas que llegan a Europa, en realidad esa avalancha no es tal. De los 123 millones de personas forzadas a abandonar su hogar en el mundo por guerras, persecución o violencia, la mayoría no llega aquí: alrededor del 73% permanece en sus países vecinos o en estados de renta baja, lo que muchas ONG sitúan en el llamado Sur global.

Es el caso de muchas personas refugiadas que huyen de Costa de Marfil, Mali y otros países de África Occidental y se establecen en Túnez (según ACNUR, más de 16.000 registradas en 2024). De hecho, Túnez se ha convertido en una pieza clave de la estrategia europea para contener la migración. El acuerdo firmado en 2023 entre la UE y el Gobierno tunecino llevó a este a endurecer el control de sus fronteras a cambio de cuantiosas ayudas económicas. Ello se tradujo en mayor represión, ataques racistas y vulneraciones de derechos humanos contra su población subsahariana que siguen produciéndose.

En ese contexto, las mujeres migrantes y refugiadas, en Túnez y en el resto de los países a los que se desplazan, cargan con una violencia añadida por el hecho de ser mujeres, expuestas a precariedad, explotación laboral o agresiones sexuales. Frente a ello, su respuesta surge desde abajo: redes informales de apoyo, viviendas compartidas o asociaciones organizadas por ellas mismas.

También en Euskadi esta sororidad funciona como refugio. Según la *Guía de asociaciones de mujeres* de Emakunde, hoy existen más de un centenar de asociaciones impulsadas por mujeres migradas en el territorio, espacios donde el apoyo mutuo se convierte en una forma de resistencia.

INAUGURAZIOA / INAUGURACIÓN

PALESTINE 36 (2025)

Annemarie Jacir. Palestina-Erresuma Batua-Frantzia-Danimarka-Norvegia-Qatar-Saudi Arabia-Jordania / Palestina-Reino Unido-Francia-Dinamarca-Noruega-Catar-Arabia Saudí-Jordania. 119 min

🔊 arabiera, ingelesa 🗣️ euskara, gaztelania

Palestina, 1936. Arabiar Matxinada Handia, estatu independente izatea helburu duena, prestatzen ari da Europan gerrako danborrak entzuten diren bitartean. 1918an Otomandar Inperioaren gainbeheraren ondoren, Frantziak eta Erresuma Batuak eskualdea zatitu eta Britainiar Agintaldia ezarri zuten Palestinan. 1930eko hamarkadaren erdialdean, lurraren, immigrazioaren eta botere kolonialaren aldeko tentsioak areagotu egin ziren. 1936ko apirilean, greba orokor batek hiriak eta landa-eremuak astindu zituen.

BRITAINIARREN AGINTALDIAREN ONDORIO KONPONEZINAK PALESTINAN

XVI. mendetik Lehen Mundu Gerra amaitu arte, Palestina Otomandar Inperioarena izan zen. Gerra hartan, potentzia aliatuek arabiarren babesa bilatu zuten turkiarrak garaitzeko, Palestinaren kasuan inoiz gauzatu ez ziren independentzia-promesen truke. Aldi berean, Frantziak eta Britainia Handiak Sykes-Picot akordio sekretua sinatu zuten, gerra amaitzean Ekialde Ertaineko otomandar lurraldeak potentzia garaileen artean banatzea aurreikusten zuena.

Horrela, 1922an, Nazioen Elkartean, NBEren aitzindariak, Palestinaren gaineko Britainiar Mandatua ezarri zuen ofizialki. Hura betez, lurraldea Britainia Handiak administratuko zuen, 1917ko Balfour Deklarazioan jasotako terminoak gehituta; deklarazioak Palestinan *"herri juduarentzako etxe nazional"* bat sortzea babesten zuen.

Hala, Europatik etorritako pertsona juduen immigrazio masiboa ekarri zuen, eta hamarkada batean Palestinako biztanleriaren % 20 izatera iritsi ziren.

1936an, kolonizazio bikoitzeko testuinguru horretan, eta arabiar biztanleriaren gero eta itomen handiagoaren aurrean, buruzagi palestinarrek greba orokor bat deitu zuten. Lurrak eskuratzeko debekua, gobernu nazional palestinarra eratzea eta immigrazio judua amaitzea eskatzen zuten. Horrela hasi zen Arabiar Matxinada Handia (1936-1939), bortizki erreprimtua izan zena eta hainbat krisi sortu zituen. Azkenik, 1946an, britainiarrek Nazio Batuen Erakunde sortu berriaren esku utzi zuten gatazkaren kontrola. 1947an, NBEk Palestina arabiarren eta juduen artean banatzea onartu zuen.

1948an komunitate juduak aldebakarrez aldarrikatu zuen bere independentzia eta horrela eratu zuen Israelgo Estatu.



Palestina, 1936. La Gran Revuelta Árabe, cuyo objetivo es lograr un estado independiente, se prepara mientras en Europa suenan tambores de guerra. Tras la derrota del Imperio Otomano en 1918, Francia y el Reino Unido dividieron la región y establecieron el Mandato Británico de Palestina. A mediados de la década de 1930, las tensiones por la tierra, la inmigración y el poder colonial se intensificaron. En abril de 1936, una huelga general sacudió ciudades y zonas rurales.

CONSECUENCIAS IRREPARABLES DEL MANDATO BRITÁNICO EN PALESTINA

Desde el siglo XVI y hasta el fin de la Primera Guerra Mundial, Palestina perteneció al Imperio Otomano. Durante esta guerra, las potencias aliadas habían buscado el apoyo de los árabes para vencer a los turcos, a cambio de promesas de independencia que, en el caso de Palestina, nunca se materializaron. Paralelamente, Francia y Gran Bretaña habían suscrito el acuerdo secreto Sykes-Picot, que preveía repartirse los territorios otomanos de Oriente Medio entre las potencias vencedoras al finalizar la guerra.

Así, en 1922, la Sociedad de Naciones, precursora de la ONU, estableció oficialmente el Mandato Británico sobre Palestina, en virtud del cual Gran Bretaña administraría el territorio incorporando los términos de la Declaración Balfour de 1917, que apoyaba la creación en Palestina de un *"hogar nacional para el pueblo judío"*.

Esto dio lugar a una inmigración masiva de personas judías procedentes de Europa, que en una década llegaron a representar el 20% de la población de Palestina.

En 1936, en este contexto de doble colonización y con la población árabe cada vez más asfixiada, los líderes palestinos convocaron una huelga general. Reclamaban la prohibición de adquisición de tierras, la formación de un gobierno nacional palestino y el fin de la inmigración judía. Así comenzó la Gran Revuelta Árabe (1936-1939), que fue brutalmente reprimida y que generó sucesivas crisis. Finalmente, en 1946, los británicos cedieron el control del conflicto a la recién creada Organización de las Naciones Unidas, que en 1947 aprobó la partición de Palestina entre árabes y judíos.

En 1948 la comunidad judía declaró unilateralmente su independencia fundando el Estado de Israel.

ALLAH N'EST PAS OBLIGÉ (2025)

Zaven Najjar. Frantzia-Luxenburgo-Belgika-Kanada-Saudi Arabia / Francia-Luxenburgo-Bélgica-Canadá-Arabia Saudí. 77 min

🎧 frantsesa 🗣️ gaztelania, ingelesa

Birahimak, hamar urteko umezurtz ginearrak, bere herrixka utzi behar du muga zeharkatzen saiatzeko eta Liberia bizi den bere izeba aurkitzeko. Haurrak Yacoubaren pausoak segitzen ditu; hizketa atsegineko arlote bat, bere gidari inprobisatua izango dena. Baina bidean, haur soldadutalde batekin topo egitean, aldatu egingo da Birahimaren halabeharra. Nahi gabe errekrutatua, nora eramango du gerrarako bideak?

AFRIKA MENDEBALDEKO HAUR SOLDADUAK

Nazio Batuen definizioaren arabera, haur soldadu bat indar armatuek edo talde armatuek errekrutatutako 18 urtetik beherako adingabe oro da, borrokatzeko, espiazteko, kargak garraiatzeko, mezularitza-lanak egiteko edo helburu sexualetarako erabiliak.

Hainbat hamarkadatan, adingabeen erreklutamenduak modu basatian markatu zituen Afrika mendebaldeko gatazkak. 1989 eta 2003 artean, Liberiako eta Sierra Leonako gerra zibilek —Gineako mugetan ere eragina izan zutenek— milaka haur sartu zituzten milizia eta armada irregular odoltsuen lerroetan. Gehienak herrixketako erasoaldietan bahitutako haurrak ziren.

Hala, zenbait talde armatuk —tartean National Patriotic Front of Liberia (NPFL) Charles Taylorren gidaritzapean eta Sierra Leonako Revolutionary United Front (RUF) Foday Sankoh zuzenduta— beren estrategia militarerako erabili zuten haurren erreklutamendua. Sarritan, indarkeriarekiko sozializazio anker baten pean jartzen zituzten adingabeak, drogak kontsumitzera eta izugarrikeriak egitera behartuta, aurretik izan zuten bizitzarekiko lotura oro itzaltzeko.

Kalkulu ofizialen arabera, gaur egun 300.000 inguru haur soldadu erabiltzen dira munduko hainbat eskualdetan, Afrikan eta beste herrialde batzuetan, besteak beste, Sirian, Myanmarren edo Afganistanen. Kolonbian, 5 urtetan, lau aldiz handitu da adingabeen erabilera talde armatuen eskutik. Azterlan batzuen arabera, munduko guztizkoaren % 30 eta % 40 artean neskek dira, ikusezin bihurtuak, borrokarako ez ezik, etxeko esklabo gisa ere erabiliak edo sexu-indarkeria jasatera ere behartuak.



© Creative Touch Studios

Birahima, un huérfano guineano de diez años, debe abandonar su aldea para intentar cruzar la frontera y encontrar a una tía que se ha establecido en Liberia. El niño sigue los pasos de Yacouba, un vagabundo de lengua suave que le sirve de guía improvisado. Pero en el camino, un encuentro con un grupo de niños soldado cambia el destino de Birahima. Reclutado involuntariamente, ¿hacia dónde le llevará el camino de la guerra?

NIÑAS Y NIÑOS SOLDADO EN ÁFRICA OCCIDENTAL

Una niña o niño soldado, según la definición de Naciones Unidas, es cualquier menor de 18 años reclutado por fuerzas armadas o grupos armados, para combatir, espiar, transportar cargas, realizar tareas de mensajería o con fines sexuales.

Durante décadas, el reclutamiento de menores marcó de forma brutal los conflictos de África occidental. Entre 1989 y 2003, las guerras civiles de Liberia y Sierra Leona —con efectos también en zonas fronterizas de Guinea— incorporaron a miles de niñas y niños a las filas de milicias y ejércitos irregulares sanguinarios. La gran mayoría procedían de secuestros durante ataques a aldeas.

Así, grupos armados como el National Patriotic Front of Liberia (NPFL), liderado por Charles Taylor, o el Revolutionary United Front (RUF) de Sierra Leona, dirigido por Foday Sankoh, convirtieron el reclutamiento infantil en parte de su estrategia militar. A menudo, se sometía a las y los menores a una feroz socialización en la violencia, se les obligaba a consumir drogas y a cometer atrocidades para romper cualquier vínculo con su vida anterior.

Según estimaciones oficiales, en la actualidad alrededor de 300.000 niñas y niños siguen siendo utilizados como soldados en conflictos armados en distintas regiones del mundo, en África y en otros países, como Siria, Myanmar o Afganistán. En Colombia, el uso de menores por grupos armados se ha cuadruplicado en 5 años. Diversos estudios estiman que entre el 30% y el 40% del total en el mundo son niñas, invisibilizadas porque, además de combatir, son utilizadas como esclavas domésticas o sometidas a violencia sexual.

ostirala / viernes > apirilak 24 abril / 20:00

Victoria Eugenia Antzokia

EVERYBODY TO KENMURE STREET (2026)

Felipe Bustos Sierra. Erresuma Batua / Reino Unido. 98 min

🎧 *ingeleza* 🇸🇰 *euskara, gaztelania*

2021eko maiatzean, Erresuma Batuko Barne Ministerioak goizaldean egindako sarekada batek aspaldian izan den erresistentzia zibileko ekintzarik espontaneo eta arrakastatsuenetako bat eragin zuen. Glasgown, dibertsitate handiena biltzen duen auzo batean, ehunka egoiliar irten ziren kalera beren bizilagunen deportazioa eragozteko. Felipe Bustos Sierra zinemagile txiletar-belgikarraren film berria, 2018an Film Luze Onenaren Publikoaren Saria irabazitakoa **¡Nae pasaran!** filmagatik.



En mayo de 2021, una redada al amanecer del Ministerio del Interior británico desencadenó uno de los actos de resistencia civil más espontáneos y exitosos de los últimos tiempos. En el barrio más diverso de Glasgow, cientos de residentes salieron a las calles para impedir la deportación de sus vecinos. Nueva película del cineasta chileno-belga Felipe Bustos Sierra, ganador en 2018 del Premio del Público al Mejor Largometraje con **¡Nae pasaran!**

AUZO BATEN INDARRA DEPORTAZIO BATEN AURREAN

2021eko maiatzaren 13an, Pollokshields (Glasgow) auzo multikulturaleko Kenmure kalean, Immigrazio Zerbitzuko furgoneta batek jatorri asiarrereko bi bizilagun atxilotu zituen, ageriko arrazoirik gabe. Handik gutxira, berri hura zabaldu eta 2.000 pertsona baino gehiago atera ziren kalera, ibilgailuak bizilagun haiek eraman ez zitzaizkien. Ordu luzez blokeatu zuten furgoneta, eta aktibista bat etzan egin zen ibilgailuaren azpian. Hala, presio izugarri haren aurrean, polizia eskoziarrak biak askatzeko agindu zuen. Eszena hura, “*gure bizilagunak dira*” oihuek lagunduta, britainiarren migrazio-politikaren aurkako erresistentzia komunitarioaren sinbolo bihurtu zen.

Gertaera hura ez zen bakarra izan, ordea, Glasgownko deportazioen aurkako mobilizazio sozialen tradizioaren parte baizik. 2005ean, “Glasgowko neska” deitutakoek Kosovoko ikaskide baten eta beste asilo-eskatzaile batzuen deportazioa geldiaraztea lortu zuten, eta zuzenketa egitera behartu zuten gobernua. Urte batzuk lehenago, 2001ean, Govanhillen komun publiko batzuen okupazio komunitarioak erakutsi zuen auzoak gaitasuna zuela antolatzeke eta desobediencia zibiletik erresistentzia egiteko. Kenmure Streeten berriro aktibatzen zen oroimen kolektibo hori: bizilagunak kalera atera ziren, han jarri eta ez esan zuten.

Euskadin ere antzeko erantzun komunitarioak eman dira. Bilbon, San Frantzisko auzoak behin eta berriz salatu ditu poliziaren sarekadak, eta migratzaileei laguntzeko auzotarren sareak eratu ditu. Bidasoaren mugan, Irungo Harrera Sareak ere egin du. Gasteizen, Gora Gasteiz herri-ekimenak milaka pertsona mobilizatu zituen 2015ean diskurtso politiko xenofoboaren aurka, dibertsitatearen hiria aldarrikatzeko.

LA FUERZA DE UN BARRIO FRENTE A UNA DEPORTACIÓN

El 13 de mayo de 2021, en la calle Kenmure del barrio multicultural Pollokshields (Glasgow), una furgoneta del Servicio de Inmigración detuvo sin motivo aparente a dos vecinos de origen asiático. Al poco, la noticia se difundió y más de 2.000 personas salieron a la calle para impedir que el vehículo se los llevara. Bloquearon la furgoneta durante horas y un activista llegó a tumbarse bajo ella. La presión fue tal que la policía escocesa ordenó la liberación de ambos. La escena, con cánticos de “*son nuestros vecinos*”, se convirtió en símbolo de resistencia comunitaria frente a la política migratoria británica.

Este episodio no fue aislado, sino parte de una tradición de movilizaciones sociales contra las deportaciones en Glasgow. En 2005, las llamadas “chicas de Glasgow” lograron frenar la deportación de una compañera de clase kosovar y de otros solicitantes de asilo, obligando al Gobierno a rectificar. Años antes, en 2001, la ocupación comunitaria de unos baños públicos en Govanhill ya había demostrado la capacidad del barrio para organizarse y resistir desde la desobediencia civil. Esa memoria colectiva volvió a activarse en Kenmure Street: vecinas y vecinos salieron a la calle, se plantaron y dijeron no.

También en Euskadi se han dado respuestas comunitarias similares. En Bilbao, el barrio de San Francisco ha denunciado reiteradamente redadas policiales y ha tejido redes vecinales para acompañar a personas migrantes. En la frontera del Bidasoa, lo ha hecho la Red Irungo Harrera. En Vitoria, la iniciativa ciudadana Gora Gasteiz movilizó en 2015 a miles de personas contra los discursos políticos xenófobos, reivindicando una ciudad diversa.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Aamer Anwar: Abokatu negoziatzailea Kenmure Streeteko protestan / *Abogado negociador en la protesta de Kenmure Street*
Joan Font: Ikertzailea IESAn (Gizarte Ikasketa Aurreratuen Institutua) (CSIC) / *Investigador en el IESA (Instituto de Estudios Sociales Avanzados) (CSIC)*

larunbata / sábado > apirilak 25 abril / 16:30

Victoria Eugenia Antzokia

Aurkeztuta / Presentada por



IVÁN & HADOUM (2025)

Ian de la Rosa. Espainia-Alemania-Belgika / España-Alemania-Bélgica. 101 min

gaztelania

Iván maitemindu egiten da Hadoume, lan egiten duen Almeriako berotegiko lankide berriaz. Hala ere, Ivánek lortutako lan-igoerak, hainbeste irrikatuak, eragina izango du bikotearen harremanean, behartu egingo baitu zer pertsona-mota izan nahi duen erabakitzen. Ian de la Rosaren opera prima, Berlinale Teddy Award saria irabazitakoa, baita Zilarrezko bi Biznaga ere (Epaimahaiaren Sari Berezia eta Gidoi Onena) Malagako Zinemaldian.

TRANS IZATEA ETA LANDA-MUNDUAN BIZITzea

Tradizioz, landa-eremuko trans pertsonak herrietatik ihes egin behar izan dute, nagusi den heteronormatibitateak disidentziak kondenatzen dituen ikusezintasunetik eta bakardadetik ateratzeko. Izan ere, LGTBIQ+ kolektiboko pertsonak jasaten dituzten diskriminazio-moduei landa-munduaren ezaugarri espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkie; ingurune horietan areagotu egiten dira askotan kontrol soziala, aurreiritziak, zurrumurruak edo erabateko anonimotasun falta.

Hala eta guztiz ere, gaur egun, gero eta LGTBIQ+ pertsona gehiagok hartu dute erabakia landa-munduan geratzeko, baita itzultzeko ere. Hala, baztertuak izan diren leku horiek birkonkistatzen eta sareak eratzen ari dira, kontzientzia, ikusgarritasuna eta disidentziak herrietan ere bizitzeko aukerak indartzeko.

Egia da gaur egun babesa dutela gizartean eta legedian eman diren aurrerapausoei esker, baina, hala eta guztiz ere, diskriminazioak hor dirau, eta kolektiboko pertsona askori eragiten die bizitzaren eremu guztietan.

Lan-eremuan bereziki, genero-identitateagatiko diskriminazioa eta, zehazki, trans pertsona izateagatikoa, dinamika normalizatua eta egiturazkoa da, eta larriagotu egiten da ingurune horietan. Diskriminazio hori enpleguak lortzen saiatzean gertatzen da, baita aurkako lan-inguruneetan ere, non bortxatu egiten diren askotariko identitateak. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziaren (FRA) arabera, Espainiako trans pertsonen % 42k adierazi du diskriminazioa jasan duela lanean.

2023an trans legea onartu zenetik, 550 pertsonak baino gehiagok aldatu dute sexua Euskadiko Erregistro Zibilean (10.670 pertsonak Espainiako Estatuan).



© Lluís Tudela

Iván se enamora de Hadoum, una nueva compañera en el invernadero de Almería donde ambos trabajan. Sin embargo, su anhelado ascenso laboral interferirá en su relación, forzándole a decidir qué tipo de persona quiere ser. Ópera prima de Ian de la Rosa, ganadora del Teddy Award en la Berlinale y de dos Biznagas de Plata (Premio Especial del Jurado y Mejor Guion) en el Festival de Málaga.

SER TRANS Y VIVIR EN EL MUNDO RURAL

Tradicionalmente, las personas trans del mundo rural han tenido que huir de los pueblos, para salir de la invisibilidad y la soledad a las que la heteronormatividad imperante condena a las disidencias. A las diferentes formas de discriminación que afectan a las personas del colectivo LGTBIQ+, se les han venido sumando las derivadas de las características específicas del mundo rural, un medio con frecuencia proclive al control social, los prejuicios, los rumores o la falta total de anonimato.

Pese a ello, en la actualidad, cada vez más personas LGTBIQ+ están decidiendo quedarse o incluso volver al mundo rural, reconquistando espacios de los que han sido excluidas. Allí generan redes que crean conciencia, visibilidad y fortalecen las posibilidades de habitar las disidencias también en los pueblos.

Es cierto que, a pesar de los avances sociales y también legislativos que les apoyan, la discriminación sigue siendo una lacra que afecta a muchas personas del colectivo en todas las esferas de su vida.

En el ámbito laboral en particular, la discriminación por identidad de género, y concretamente por ser persona trans, es una dinámica normalizada y estructural, que en el entorno rural se agrava. Esta discriminación se produce al intentar acceder a empleos, y también en entornos laborales hostiles, donde se violentan las identidades diversas. Hasta el 42% de las personas trans en España afirma haber sufrido discriminación en el empleo, según la Agencia de Derechos Fundamentales de la Unión Europea (FRA).

Desde la aprobación de la ley trans en 2023, más de 550 personas han cambiado su sexo en el Registro Civil en Euskadi (10.670 en el Estado español).

larunbata / sábado > apirilak 25 abril / 17:00

Antzoki Zaharra / Teatro Principal

La Barrière (2025)

Christophe Deram. Frantzia / Francia. 18 min

🔊 *frantsesa, ingelesa* 🗣️ *euskara, gaztelania*



Géraldinek errepide bakarti bat blokeatzen du Calaisetik gertu pelikula bat filmatzeko. Ez da jende askorik pasatzen, Amar izan ezik, errefuxiatu siriarra. Hesiak eta *walkie-talkie* etengabe jasotzen ari den aginduek estuturik, Géraldine bere eginkizuna betetzen ahalegintzen da jakingura den Amarren begirada dibertigarriaren pean.

Géraldine bloquea una carretera desierta para el rodaje de una película cerca de Calais. No pasa mucha gente, salvo Amar, un refugiado sirio. Agobiada por su barrera y su *walkie-talkie*, que no deja de darle órdenes, Géraldine se esfuerza por cumplir su misión bajo la mirada curiosa y divertida de Amar.

Carmela (2025)

Vicente Mallols. Espainia-Frantzia / España-Francia. 15 min

🔊 *gaztelania*



Espainiako Gerra Zibila hasi ondoren, Carmela milizietara elkartzen da milaka emakumerekin batera. Haien borroka bikoitza da: faxismoari aurre egitea eta Bigarren Errepublikan irabazitako askatasunak defendatzea. Borrokan, etxeko granada batek eskua anputatzen dio, bere eskubideen alde, bere idealei eta armari eusteko erabili zuena.

Tras el estallido de la Guerra Civil española, Carmela se une a las milicias junto a miles de mujeres. Su lucha es doble: enfrentarse al fascismo y defender las libertades ganadas en la Segunda República. En combate, una granada casera le amputa la mano que había usado para sostener sus ideales y su arma en defensa de sus derechos.

NAZIOARTEKO FILM LABURREN MARATOIOA MARATÓN CORTOS INTERNACIONALES (148 min)

Blonde, My Enchanting Color (2025)

Seyed Payam Hosseini. Iran-Arabiarr Emirerri Batuak-Irak / Irán-Emiratos Árabes Unidos-Irak. 19 min

🔊 *farsi* 🗣️ *euskara, gaztelania*



Zahra, 16 urteko neska, familia erlijiozale batean bizi da. Lagun baten urtebetetze festara gonbidatuta dago, eta horrek desafio handi baten aurrean jarriko du.

Zahra, una joven de 16 años, vive en una familia muy religiosa. Está invitada a la fiesta de cumpleaños de una amiga, y esto le va a enfrentar a un gran desafío.

Les imatges arribaren a temps (2025)

Jaume Carrió. Espainia / España. 6 min

🔊 *katalana* 🗣️ *euskara, gaztelania*



Oraintsuko hondamendi naturalek inpaktu emozionala izan dute Jaume Carrió zinemagilearengan. Saiakera honetan, galerari buruzko hausnarketa bat egiten du, eta gizarteak oroitzapenak nola atzitzen dituen aztertzen du.

Los desastres naturales más recientes han tenido un impacto emocional en el cineasta Jaume Carrió, quien reflexiona sobre la pérdida en este ensayo que analiza la forma en que tiene la sociedad de capturar los recuerdos.

Lucy (2025)

Dea Saračević. Suedia / Suecia. 14 min

🔊 *suediera* 🗨️ *euskara, gaztelania*



Hamaika urteko bi neska, jatorri desberdinekoak, lagun egiten saiatzen ari dira eremu neutral batean, adiskidetasun hori eskola-eremutik kanpo bakarrik existitu daitekeela jakitun. Tentsioa areagotu egiten da errealitateari eta besteek ezarritako arauetara aurre egin behar dietenean.

Dos niñas de once años con orígenes diferentes intentan forjar una amistad en un terreno neutral, conscientes de que solo puede existir fuera del ámbito escolar. La tensión aumenta al tener que enfrentarse a la realidad y a las normas impuestas por las demás.

La Première Marche (2025)

Olivier Wright. Frantzia / Francia. 18 min

🔊 *frantsesa* 🗨️ *euskara, gaztelania*



Victoire 20 urteko judokaren trans identitatea zalantzan jartzen da txapelketa baten erdian. Soniak, bere hurrengo aurkariak, ez du berarekin borrokatu nahi. Eztabaida handitzen doan bitartean, Victoire gehien axola zaion horretan zentratzen saiatzen da: bere hurrengo borroka.

La identidad trans de Victoire, una judoka de 20 años, es cuestionada en mitad de un torneo. Sonia, su próxima oponente, no quiere pelear con ella. Mientras el debate crece, Victoire trata de focalizarse en lo que más le importa: su próximo combate.

Pasta negra (2025)

Jorge Thielen Armand. Kanada-Venezuela-Kolonbia-Italia / Canadá-Venezuela-Colombia-Italia. 15 min

🔊 *gaztelania*



Hiru emakume venezuelar Kolonbiako muga zeharkatzen ari dira pasta pakete bat erosteko.

Tres mujeres venezolanas cruzan la frontera de Colombia para comprar un paquete de pasta.

Relato del niño que estuvo allí (2025)

Sergio Ruiz García. Espainia / España. 9 min

🔊 *gaztelania*



Film labur dokumental honek Titoren testigantza jasotzen du. 90 urtetik gorako gizon bat da, eta Espainiako Gerra Zibilean Cuetoko (Santander) landa-ingurunean bizitako haurtzaroa gogora ekartzen du. Sei urte eskas zituela, bere bizitza betiko markatu zuten eszenen lekuko izan zen.

Cortometraje documental que recoge el testimonio de Tito, un hombre de más de 90 años que rememora su infancia durante la Guerra Civil española en el entorno rural de Cueto, Santander. Con apenas seis años, fue testigo de escenas que marcaron su vida para siempre.

The Seventh Month (2025)

Aizada Amangeldy. Kirgizistan / Kirguistán. 16 min

🔊 kirgiza 🇸🇰 euskara, gaztelania



Duela zazpi hilabete ebakuntza larri bat egin zioten: umetokia eta obulutegiak kendu zizkioten. Amatasuna emakume baten helburu nagusizat hartzen den gizarte batean, ezin die horren berri eman ez bere gurasoei ez senarraren gurasoei.

Hace siete meses, Mira se sometió a una operación grave: le extirparon el útero y los ovarios. En una sociedad donde la maternidad se considera el propósito supremo de una mujer, no puede revelarlo ni a sus padres ni a los de su marido.

Voie publique (2025)

Farah Elmokadem. Egipto-Frantzia / Egipto-Francia. 18 min

🔊 arabiera 🇸🇰 euskara, gaztelania



Bere esperientzia pertsonalean oinarrituta, Farah maitasun adierazpen publikoak esploratzen ari da bere lagun taldearekin, Kairoko kaleetan. Une erromantikoen trukea, polizia moralak eta herritarrek arretra handiz behatuak eta zapalduak.

Basándose en su experiencia personal, Farah explora con su grupo de amigas y amigos las muestras públicas de afecto en las calles de El Cairo. Un intercambio de momentos románticos, cuidadosamente reprimidos y vigilados por la policía moral y la ciudadanía.



CAIMAN

CUADERNOS DE CINE

EDICIÓN DIGITAL

Siempre al alcance de su mano

- Busque el texto que desea y márkelo como favorito
- Comparta textos en las redes sociales
- Guarde los recortes de lo que le interesa
- Lea o escuche los textos
- Amplíe el contenido para una mejor lectura



Ahora puede leer también **Caimán Cuadernos de Cine** en su ordenador (PC o Mac) y, si lo desea, descargarlo y llevárselo consigo a donde quiera que vaya en iPad, iPhone o todo tipo de dispositivos Android (tablet o smartphone).



SUSCRIPCIÓN ANUAL

11 números
(uno gratis)
EJEMPLAR
INDIVIDUAL
3,59 euros

35,99
euros

Suscríbese o haga su pedido en nuestra web:

www.caimanediciones.es

y también en:



SUCIA (2025)

Bàrbara Mestanza, Marc Pujolar. Espainia / España. 82 min

🔊 katalana, gaztelania 🇪🇸 gaztelania, euskara

Masaje batean sexu-eraso bat jasan ondoren, Bàrbara Mestanza aktoreak arte bihurtzen du trauma: antzezlan gordin eta kontzesiorik gabeko bat. “Zergatik ez zenuen ezer egin?” galderaren aurrean, bidaia bati ekiten dio bere erasotzailea aurkitzeko, maskulinitasun toxikoa kuestionatzeko eta bere ahotsaren bitartez justizia aldarrikatzeko.



Tras sufrir una agresión sexual durante un masaje, la actriz Bàrbara Mestanza transforma el trauma en arte: una obra de teatro cruda y sin concesiones. Frente a la pregunta “¿Por qué no hiciste nada?” inicia un viaje para encontrar a su agresor, cuestionar la masculinidad tóxica y reivindicar la justicia desde su propia voz.

INDARKERIA MATXISTA SALATZEA: ZIGOR BIHURTUTAKO ESKUBIDEA

Berdintasun Ministerioak 2025aren amaieran ezagutzera emandako Emakumearen aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestaren arabera, Espainian, 16 urtetik gorako 3 emakumetik ia 1ek (% 30,3) indarkeria-motaren bat jasan du (eraso fisikoak, sexu-indarkeria, murrizketa ekonomikoak edo eraso psikologikoak) egungo bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik, bizitzako uneraren batean. Joan den urteko urtarriletik abendura bitartean, sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko salaketan guztizkoa % 2,3 igo zen (21.659 salaketa), hau da, 59 sexu-eraso egunean (penetrazioarekin eta gabe).

Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoaren (“bai bakarrik da bai legea” izenez ezagunagoa) inguruko zarata mediatikoak eta politikoak sexu-harremanen baimenari buruzko eztabaidari baretasunez heltzea oztopatu zuen. Abusuaren eta sexu-erasoaren arteko bereizketa ezabatzen duen arau horrek sexu-harremanen erdigunean kokatzen du adostasuna, eta adierazten du askatasunez eta argi adierazi behar dela, pertsona guztiak beren sexualitatearen inguruan erabaki seguruak eta presiorik gabekoak hartu ahal izan ditzaten.

Hala ere, printzipio hori praktika judizialera eta salaketen errealitatera eramatea konplexuagoa da; xehetasunetan dago gaitza. Horren adibide dira eraso gertatu zenetik urte batzuk igaro ondoren jarritako salaketek dituzten oztopoak. Biktimari berari lotutako faktoreek ere esku hartzen dute: familia-ingurunearen ulertezintasunak, bakarrik egotearen sentrazioak eta erruduntasunak. Horrek guztiak datu adierazgarri bat jasotzen du: bikote-harremanetik kanpo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen % 8k baino ez dute salaketa jarri.

DENUNCIAR LA VIOLENCIA MACHISTA: UN DERECHO CONVERTIDO EN CASTIGO

Según la Macroencuesta de Violencia contra la Mujer que se daba a conocer por el Ministerio de Igualdad a finales del 2025, casi 1 de cada 3 mujeres en España (30,3%) mayores de 16 años ha sufrido algún tipo de violencia (agresiones físicas, violencia sexual, restricciones económicas o ataques psicológicos) por parte de su pareja actual o de exparejas en algún momento de su vida. Entre enero y diciembre del pasado año, el total de denuncias por delitos contra la libertad sexual creció un 2,3% hasta las 21.659, es decir, 59 denuncias por agresión sexual al día (con y sin penetración).

El ruido mediático y político que rodeó la Ley Orgánica 10/2022 de Garantía Integral de la Libertad Sexual (más conocida como “ley del solo sí es sí”) impidió un debate sereno sobre el consentimiento en las relaciones sexuales. Esta norma, que elimina la distinción entre abuso y agresión sexual, sitúa el consentimiento en el centro de las relaciones sexuales, indicando que debe ser libremente manifestado y claro en sus términos, de manera que permita a todas las personas tomar decisiones seguras y sin presiones en torno a su sexualidad.

Sin embargo, trasladar este principio a la práctica judicial y a la realidad de las denuncias resulta más complejo; el diablo está en los detalles. Un ejemplo son los obstáculos con que se enfrentan las denuncias interpuestas pasados varios años desde la agresión. También intervienen factores relativos a la propia víctima: la incomprensión del entorno familiar, la sensación de soledad y culpabilidad. Todo ello resulta en un dato elocuente: solo el 8% de las mujeres que ha sufrido violencia sexual fuera de la pareja ha presentado una denuncia.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Bàrbara Mestanza & Marc Pujolar: Filmaren zuzendariak / Directora y director de la película

Cecilia Piris: Clara Campoamor Elkarte abokatua / Abogada de la Asociación Clara Campoamor

igandea / domingo > apirilak 26 abril / 12:00

Victoria Eugenia Antzokia

librea gonbidapenarekin / gratis con invitación

haurrentzako zinema
cine infantil



ESERLEKU URDINA
BUTACA AZUL

GAUTENA
Gipuzkoako Autismo Elkartea
Asociación Guipuzcoana de Autismo



Lehiaketatik kanpo / Fuera de concurso

IPUINAK LORATEGI MAGIKOTIK (*Pohádky po babicce*, 2025)

David Súpup, Patrik Pašš, Leon Vidmar, Jean-Claude Rozec

Txekiako Errepublika-Eslovakia-Eslovenia-Frantzia / República Checa-Eslovaquia-Eslovenia-Francia. 82 min

🔊 euskara

Tom, Suzanne eta Derek anai-arrebek lehen aldiz ematen dute asteburua aitonaarekin. Aitona pixka bat goibel dabil amona hil zenetik eta une zaila da guztiontzat. Baina Suzanne narratzaile-lanetan hasten da, amonak egin ohi zuen bezalaxe, eta etxea abenturazko, umorezko eta fantasiarako ipuin magikoz betetzen da. Familiaren tradizio kuttun bati jarraituz, bakoitzak osagai berri bat eranstean die istorioei eta horri esker, guztiek ulertzen dute istorioak kontatzeak sendatzeko ahalmen itzela izan dezakeela. Poza eta barreak etxera itzultzen diren heinean, haurren eta aitonaaren arteko lotura indartu egiten da, eta kontsolamendua eta indarra aurkitzen dute guztiek partekatutako oroitzapenetan.

Tom, Suzanne y Derek pasan el fin de semana con su abuelo por primera vez desde que murió la abuela. Desde entonces está un poco taciturno. Pero Suzanne se pone a hacer de narradora, como solía hacer ella, y la casa se llena de cuentos mágicos de aventuras, humor y fantasía. Siguiendo una tradición familiar, cada uno añade un nuevo componente a las historias, lo que permite comprender que contar historias puede tener un enorme poder curativo. A medida que la alegría y las risas vuelven a casa, el vínculo con su abuelo se refuerza y todos encuentran consuelo y fuerza en los recuerdos compartidos.



THE DISAPPEARANCE OF JOSEF MENGELE (2025)

Kirill Serebrennikov. Frantzia-Alemania / Francia-Alemania.
136 min

🔊 alemana, gaztelania, portugesa 🇺🇸 gaztelania, ingelesa

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Josef Mengelek, Auschwitzeko "Heriotzaren Aingeruak", Hego Amerika ihes egin zuen bere bizitza klandestinitatean berregiteko. Bere semea berriro elkartuko da harekin eta bere begiradaren bitartez Mengelek bazter utzitako iraganari aurre egin behar izango dio berriro. Buenos Airestik Paraguaraino, Brasiletik igarota, Mengelek zehatz-mehatz antolatuko du bere desagerepena epaitua izan ez dadin.

KRIMINAL NAZIAK LATINOAMERIKAN: ZIGORGABETASUNAREN ETA DESMEMORIAREN ARTEAN

Kalkuluen arabera, 9.000 nazi baino gehiagok ihes egin zuten Hego Amerika Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Haietako askok, justiziarik ihes eginez, klandestinitatean berregin zituzten beren bizitzak, besteak beste, Brasilen, Txilen eta Argentinan. Josef Mengele, Auschwitzeko kontzentrazio-esparruko medikua, haietako bat izan zen. "Heriotzaren Aingerua" izenez ezaguna, Mengelek esperimendu hilgarriak egin zituen presoekin, eta milaka pertsona hautatu zituen gas ganberan exekutatzeko. Gerra ostean, Argentinan, Paraguain eta Brasilen babestu zen. Epaitua izan gabe hil zen. Sekula ez zuen damu-seinalerik erakutsi.

Hego Amerikarekin batera, Espainia kriminal nazientzako babesleku garrantzitsu bihurtu zen. Erregimen frankistak Holokaustoan egindako krimenetan zuzenean inplikaturako SSko milaka kideri eman zien aterpea. Ikerketa batzuen arabera, 1947an 40.000 nazi inguru bizi ziren Espainian. Haietako asko goi-mailako ofizialak ziren, eta estradizio-eskaerak zituzten. Frankistek ez zieten inoiz kasurik egin eskaera haiei. Francok horrela itzuli zion III. Reichi Espainiako Gerra Zibilean Adolf Hitlerrek alderdi nazionalari emandako laguntza.

Oso kasu mediatikoa izan zen Léon Degrelle naziarena: Espainiarantz ihesi zihola, Donostiako Kontxa hondartzako badian talka egin zuen bere hegazkinarekin. Malagan bizi izan zen babestuta 1994an hil zen arte. Beti ukatu zuen holokaustoa.

Euskadin, nazien presentzia txikiagoa izan zen arren, kasu dokumentatuak daude. **Una esvástica sobre el Bidasoa** (2013) filmak nazien presentzia berreraikitzen du euskal mugan, baita 40ko hamarkadan Euskadin izan ziren espioitza- eta babes- sareak ere.



Tras la Segunda Guerra Mundial, Josef Mengele, el "Ángel de la Muerte" de Auschwitz, escapa a Sudamérica para reconstruir su vida en la clandestinidad. A través de la mirada de su hijo, con quien se reencuentra, Mengele se enfrenta a un pasado que ya no puede ignorar. De Buenos Aires a Paraguay, pasando por Brasil, Mengele organizará su metódica desaparición para evitar cualquier juicio.

CRIMINALES NAZIS EN LATINOAMÉRICA: ENTRE LA IMPUNIDAD Y LA DESMEMORIA

Se calcula que más de 9.000 nazis huyeron a Sudamérica tras la Segunda Guerra Mundial. Muchos de ellos rehicieron sus vidas viviendo en clandestinidad y eludiendo a la justicia en países como Brasil, Chile y Argentina. Josef Mengele, médico en el campo de concentración de Auschwitz, fue uno de ellos. Conocido como el "Ángel de la Muerte", Mengele realizó experimentos mortales con prisioneros y seleccionó a miles de personas para su ejecución en la cámara de gas. Tras la guerra se refugió en Argentina, Paraguay y Brasil. Murió sin haberse sentado delante de ningún tribunal. Nunca mostró signos de arrepentimiento.

Junto a Sudamérica, España se convirtió también en un refugio importante para los criminales nazis. El régimen franquista dio cobijo a miles de miembros de las SS implicados directamente en los crímenes cometidos durante el Holocausto. Algunos estudios estiman que hacia 1947 alrededor de 40.000 nazis vivían en España. Muchos de ellos eran oficiales de alto rango sobre los que recaían peticiones de extradición. Los franquistas nunca hicieron caso a estas solicitudes. Franco devolvía al III Reich la ayuda prestada por Adolf Hitler al bando nacional durante la Guerra Civil española.

Un caso muy mediático fue el del nazi Léon Degrelle que, huyendo hacia España, se estrelló con su avioneta en la bahía de la playa de La Concha de Donostia. Vivió asilado en Málaga hasta su muerte en 1994. Siempre negó el Holocausto.

En Euskadi, aunque la presencia de nazis fue menor, hay casos documentados. La película **Una esvástica sobre el Bidasoa** (2013) reconstruye la presencia nazi en la frontera vasca y las redes de espionaje y refugio que operaron en Euskadi durante los años 40.

igandea / domingo > apirilak 26 abril / 17:00

Antzoki Zaharra / Teatro Principal

EUSKAL FILM LABURREN MARATOIA MARATÓN DE CORTOMETRAJES VASCOS (95 min)

El cuerpo de Cristo (2025)

Bea Lema. Espainia / España. 12 min

🔊 galiziera 🗲 euskara, gaztelania



Deabru bat Adelaren etxe inguruan dabil, jazartzen eta kaltea eragiten. Bizi duen egoeratik psikiatraren kontsultara joaten da, eta hark medikazioa agintzen dio bere arazo guztien erabateko sendabidetzat. Ordea, norbaitek benetan gertatzen zaiona entzutea da Adelak behar duena.

Un demonio ronda la casa de Adela, acosándola y haciéndole daño. Esto la lleva a la consulta del psiquiatra, donde la medicación se presenta como el remedio absoluto a todos sus problemas. Pero ella necesita que alguien escuche lo que realmente le ocurre.

La diva, mi abuela y yo (2025)

Inés G. Aparicio. Espainia / España. 10 min

🔊 gaztelania



Inés emakume independenteen eta mugarik gabeko ametsen bidaia batean murgiltzen da bere amonak iraganeko abesti bat abesten duenean.

Inés se embarca en un viaje de mujeres independientes y sueños sin fronteras cuando su abuela canta una canción del pasado.

Hogeitabat (2025)

Elene Mengyu Larrinaga Bilbao. Espainia / España. 12 min

🔊 euskara 🗲 gaztelania



Guraso zuri batzuk 11 hilabeteko neskatila bat adoptatu zuten Txinan. Hogeita bat urte geroago, jada heldua den neskato horrek kontatzen du nola bere begiak gorrotoaren lekuko bihurtu diren, arrazista ez dela dioen herrialde batean.

Una niña de 11 meses es adoptada en China por padres blancos. Veintiún años después, esa misma niña, ya adulta, relata cómo sus ojos se han convertido en testigos del odio en un país que insiste en afirmar que no es racista.

Noi donne (2025)

Laura Gabay. Espainia-Suitza / España-Suiza. 11 min

🔊 italiara 🗲 euskara, gaztelania



Saiakera zinematografiko honek feminismoa historikoki pentsatzea proposatzen du, iragana orainarekin lotuta. Gaur filmatutako irudiek (2024ko martxoaren 8an Donostian) elkarrizketa bat ezartzen dute Collettivo Femminista di Cinema-Romak 1971n egindako **L'aggettivo donna** filmaren soinuarekin eta artxiboekin.

Este ensayo cinematográfico propone pensar el feminismo históricamente, conectando el pasado con el presente. Las imágenes filmadas hoy (8 de marzo de 2024 en San Sebastián) dialogan con el sonido y los archivos del film **L'aggettivo donna** de 1971, realizado por el Collettivo Femminista di Cinema-Roma.

El regalo (2025)

Lara Izagirre Garizurieta. Espainia / España. 14 min

🔊 *gaztelania*




Aurora, Dessi eta Samara, ijito emakume hirukotea, Bilboko erdigunera jaitsi dira, Sarai ilobari urtebetetze-oparia erostera.

Aurora, Dessi y Samara, un trío de mujeres gitanas, baja al centro de Bilbao para comprarle un regalo de cumpleaños a su sobrina Sarai.

Urdaibaiko sakrifizioa (2025)

Galder Irusta. Espainia-AEB / España-EEUU. 18 min

🔊 *euskara* 🇸🇵 *gaztelania*



Ibai, kontsultore gazteak, Euskal Herriko biosfera erreserba berezian, Urdaibain, Guggenheim museo berria eraikitzea ahalbidetuko duen onspen ekologikoa lortu behar du.

Ibai, un joven consultor, debe conseguir el aval ecológico que permitirá la construcción de un nuevo museo Guggenheim en la única reserva de la biosfera del País Vasco: Urdaibai.

Ultramarino (2025)

Maren Zubeldia, Silvina Guglielmotti. Espainia / España. 18 min

🔊 *euskara* 🇸🇵 *gaztelania*



Herriko jaiak dira, eta Zazu, nerabezeroaren atarian bere nortasunaren bila dabilena, bidegurutze batean dago: aukeratu egin beharko du edo tradizioz zehaztutako rola bete edo bere sentimenduek agintzen diotenari jarraitu.

Zazu, a las puertas de la adolescencia y en plena búsqueda de su identidad, debe elegir entre desempeñar un rol predeterminado en la fiesta de su pueblo o ser fiel a sus sentimientos.

EITB Saria lortzeko hautagaiak
Candidatos al Premio EITB



igandea / domingo > apirilak 26 abril / 20:00

Victoria Eugenia Antzokia

L'INTÉRÊT D'ADAM (2025)

Laura Wandel. Belgika-Frantzia / Bélgica-Francia. 78 min

🔊 frantsesa 🇬🇧 euskara, gaztelania

Epai judizial baten ondoren, Adam, lau urteko mutila, desnutrizioagatik ospitaleratu dute. Lucyk, erizain-buruak, auzitegiak ezarritako bisita-ordutegitik harago ospitalean egoteko aukera ematen dio Adamen amari. Baina arazoak sortzen dira, amak, beste behin ere, semearengandik banantzeari uko egiten dionean. Umearen onerako, Lucyk ahal duen guztia egingo du ama larritu honi laguntzeko.



Tras una sentencia judicial, Adam, de cuatro años, es hospitalizado por desnutrición. Lucy, la jefa de enfermeras, permite que la madre de Adam permanezca en el hospital más allá del horario de visitas establecido por el tribunal. Pero surgen problemas cuando la madre, una vez más, se niega a separarse de su hijo. Por el bien del niño, Lucy hará todo lo posible por ayudar a esta madre angustiada.

HAURREN OSASUNAREN DIMENTSIO SOZIALA

Zenbaitetan, haur batek ospitale bateko atea zeharkatzen duenean, pediatriako kontsultara ez da gaixotasun bat bakarrik iristen, baizik eta historia familiar eta sozial bat ere bai, eta horrek medikuntzatik harago begiratzera behartu ditzake medikuak eta erizainak. Izan ere, haurtzaroan (bizitzako gainerako etapetan bezala) osasuna gutxitan dago diagnostiko baten mende soilik. Hezkuntzak, familiaren egoera ekonomikoak, jatorriak edo ongizate emozionalak ere baldintzatzen dute.

Testuinguru kalteberetan hazten diren haurrek maizago izaten dituzte osasungarriak ez diren ohiturak, eta osasun fisiko eta mental okerragoa garatzeko arrisku handiagoa izaten dute. Gainera, hainbat azterlanek adierazten dutenez, estres-egoeren eraginpean etengabe egoteak —besteak beste, genero-indarkeria, eskola-jazarpina edo gurasoen dibortzioa— eragina izan dezake haien garapen fisiko, mental eta emozionalean, baita funtsezko prozesuetan ere, tartean ikaskuntzan eta oroimenean.

Ebidentzia hori praktika klinikoa eta zaintza ulertzeko modua aldarazten ari da. Gero eta maizago, profesional sanitarioek ikuspegi biologizista hutsetik harago joan behar dute, eta arreta holistikoagoa eskaini, osasunaren determinatzaile sozialei, ingurumenekoei eta emozionalei ere erantzuteko.

Ildo horretan, Euskadiko Osasun Itunak, euskal erakundeek Euskadin kalitatezko arreta bermatzeko eta osasun-sistema eraldatzeko hartu duten bide-orriak, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa indartzearen alde egiten du. Era berean, gizakien, animalien eta ingurumenaren osasuna osasun-plangintzan txertatzea eta komunitate-osasuna sustatzea proposatzen du.

LA DIMENSIÓN SOCIAL DE LA SALUD INFANTIL

A veces, cuando una niña o niño cruza la puerta de un hospital, a la consulta pediátrica no llega solo una enfermedad, sino también una historia familiar y social que puede obligar a los equipos médicos y de enfermería a mirar más allá de la medicina. Y es que en la infancia (como en el resto de las etapas vitales) la salud rara vez depende únicamente de un diagnóstico. También la condicionan la educación, la situación económica de la familia, el origen o el bienestar emocional.

Las niñas y niños que crecen en contextos vulnerables presentan con más frecuencia hábitos poco saludables y tienen más riesgo de desarrollar peor salud física y mental. Diversos estudios señalan, además, que la exposición continuada a situaciones de estrés —como la violencia de género, el acoso escolar o el divorcio de sus progenitores— puede afectar a su desarrollo físico, mental y emocional, e interferir en procesos clave como el aprendizaje o la memoria.

Esta evidencia está cambiando la manera de entender la práctica clínica y los cuidados. Cada vez con más frecuencia, las y los profesionales sanitarios deben ir más allá de un enfoque meramente biologicista y ofrecer una atención más holística, que atienda también los determinantes sociales, medioambientales y emocionales de la salud.

En esa línea, el Pacto de Salud de Euskadi, hoja de ruta que las instituciones vascas han adoptado para garantizar una atención de calidad en Euskadi y transformar el sistema sanitario, apuesta por reforzar la coordinación entre sanidad y servicios sociales. Asimismo, propone integrar la salud humana, animal y ambiental en la planificación sanitaria y promover la salud comunitaria.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Estibaliz Argüelles Aparicio: Pediatriako Kudeaketa Klinikoko Unitateko Erizaintzako koordinatzailea / *Coordinadora de Enfermería de la UGC de Pediatría*

Izaskun Ferrer Iglesias: Donostialdeko ESIko Erizaintzako zuzendariordea / *Subdirectora de Enfermería de la OSI Donostialdea*

Amaia Mayor: Euskadiko SATSE - Erizainen Sindikatuko idazkari nagusia / *Secretaria general de SATSE - Sindicato de Enfermería Euskadi*

À BRAS-LE-CORPS (2025)

Marie-Elsa Squaldo. Suitza-Belgika-Frantzia / Suiza-Bélgica-Francia. 97 min

🗣️ frantsesa, alemana 🗣️ euskara, gaztelania

Emmak 15 urte ditu, haurdun dago bortxaketa baten ondoren, eta landa-eremuko bere komunitate protestanteari egiten ari zaio aurre, autodeterminaziorako bidea egin nahian. Hala, bere trauma katalizatzaile bihurtzen du bere emantzipazioa lortze aldera, herrixkaren hipokresia moralari eta inguratzen duen Bigarren Mundu Gerraren espektroari aurre egin bitartean. Kontakizunak aurrera egin ahala, egia saihestezina agertzen zaio: inor ez da neutrala gerra garaian.

EMAKUMEEN ETENGABEKO MATXINADA SISTEMA PATRIARKALAREN AURKA

XX. mendearen lehen erdian, Europako landa-komunitate txiki askok arau zorrotzak zituzten, eguneroko bizitza baldintzatzen zutenak, batez ere emakumeenak. Testuinguru horretan, tokiko elizek inposatu egiten zuten sozialki eta moraliki onargarria zena, besteak beste, Suitzako Eliza Erreformatuaren kasuan, suitzar kantoietan. Haien herentzia zwingliar eta kalbinistak bultzatutako antolamendu sozialak askatasunik gabe uzten zituen emakumeak, gizonak emandako agindu moralen eta politikoen mende jarrita. Arretaz begiratzen ziren haien sexu-jokabideak, janzkera eta ohiturak; mandatu zorrotzak ezartzen zitzaizkien, esaterako, ezkontzarena eta derrigorrezko amatasunarena, eta haien ugalketa-eskubideak kontrolatzen ziren.

Hala ere, emakume haiek eta beste askok ez zioten utzi matxinatzeari eta erabakitzeke zuten eskubidea aldarrikatzeari. Ez lehen eta ez orain. Abortatzeko eskubidearen aldeko borroka aurrerapauso handiak eman ditu historikoki munduko hainbat herrialdetako legegietan; azkena 2024an, Frantziak erabaki zuenean abortatzeko eskubidea ezartzea bere Konstituzioan bermatutako askatasun gisa.

Aitzitik, 2022an, AEBko Gorte Gorenak eskubide horri Konstituzio federalaren babesa kentzea ebatzi zuen. Eta Argentinan, Txilen edo Errusian atzerapauso handiak ematen ari dira, sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea murriztean. Beste herrialde batzuetan, esaterako Polonian, Marokon eta Andorran, oso kasu mugatuetan baino ezin da abortatu, eta kartzela-zigorak ezartzen zaizkie emakumeei eta laguntzen dietenei.

Espainiako Estatuan, duela aste batzuk Gobernuak iragarri zuen Frantziako ereduari jarraitzeko eta abortatzeko eskubidea Konstituzioan blindatzeko asmoa zuela.



© Box Productions - Pierre Daendliker

Emma, de 15 años, embarazada después de una violación, desafía a su represiva comunidad rural protestante para forjar un camino de autodeterminación, transformando el trauma en un catalizador para su emancipación mientras se enfrenta a la hipocresía moral de la aldea y al espectro de la Segunda Guerra Mundial que la rodea. A medida que avanza el relato se le revela una verdad ineluctable: nadie es neutral en tiempos de guerra.

MUJERES EN REBELIÓN PERMANENTE CONTRA EL SISTEMA PATRIARCAL

Durante la primera mitad del siglo XX, muchas pequeñas comunidades rurales europeas se regían por normas estrictas que condicionaban la vida cotidiana, sobre todo de las mujeres. En ese marco, las iglesias locales imponían lo social y moralmente aceptable, como en el caso de la Iglesia Reformada Suiza en los cantones suizos. Su herencia zwingliana y calvinista favorecía una organización social que desposeía a las mujeres de su libertad, sometiéndolas a preceptos morales y políticos dictados por hombres. Se vigilaban sus conductas sexuales, la vestimenta y las costumbres, reforzando mandatos como el del matrimonio y la maternidad obligatoria y controlando sus derechos reproductivos.

Sin embargo, estas mujeres y otras muchas no dejaron de rebelarse y de reclamar su derecho a decidir. Ni antes ni ahora. La lucha por el derecho al aborto ha conseguido históricamente importantes avances en las legislaciones de diferentes países del mundo. La última en 2024, cuando Francia decidió establecer el derecho al aborto como libertad garantizada en su Constitución.

Por el contrario, en 2022, la Corte Suprema de EEUU resolvió que este derecho dejara de estar protegido por la Constitución federal. Y en Argentina, Chile o Rusia se están produciendo retrocesos importantes, reduciendo el acceso a servicios de salud sexual y reproductiva. En otros países como Polonia, Marruecos o Andorra, solo se puede abortar en supuestos muy limitados y se imponen penas de cárcel a las mujeres y a quienes las asisten.


En el Estado español, hace apenas unas semanas el Gobierno anunció su intención de seguir el ejemplo francés y blindar el derecho al aborto en la Constitución.

MADE IN EU (2025)

Stephan Komandarev. Bulgaria-Alemania-Txekiako Errepublika / Bulgaria-Alemania-República Checa. 102 min

🔊 bulgariara 🗨️ euskara, gaztelania

Ivak Bulgariako landa-eremuko arropa-fabrika batean egiten du lan, eta gaixotasun iraunkor eta misteriotsu bati aurre egiten ari zaio. Bere herri txikian Covidaren lehen kasua bera dela jakiten denean, berri hori azkenik ez duen *j'accuse* bihurtzen da: lehenik, lantegiko jabeen aldetik, erantzukizuna desbideratzeko gogoz, eta gero, lankideen aldetik, semearen aldetik eta, azkenik, komunitate osoaren aldetik, nahiz eta urteak diren herritik atera ez dela. Birusaren aurreneko biktimak agertu ahala gero eta gogorragoak dira publikoki jasotzen dituen irainak, berehala paria sozial bihurtzera eramango dutenak.



Iva trabaja en una fábrica de ropa en la Bulgaria rural, enfrentándose a una enfermedad persistente y misteriosa. Cuando se revela que es el primer caso de Covid en su pequeño pueblo, las noticias se convierten en un interminable *j'accuse*: primero por parte de los dueños de la fábrica, deseosos de desviar la responsabilidad, después por sus compañeros de trabajo, su hijo y, finalmente, por toda la comunidad, a pesar de que hace años que no ha salido del pueblo. Con su creciente demonización pública a medida que aparecen las primeras víctimas del virus, se convierte rápidamente en una paria social.

PREKARIETATEAREN FEMINIZAZIOA EHUNGINTZAKO INDUSTRIAN EUROAPAN

XX. mendearen erdialdera arte, ehungintzako industria, munduko ekonomiaren motorretako bat, ipar globaleko herrialde aberatsetan zegoen. Bigarren Mundu Gerratik aurrera, industria hori herrialde periferikoetarantz deslocalizatzen hasi zen, garraioa merketu izanaren eta komunikazioaren teknologia berriak garatu izanaren ondorioz. Helburua: fabrikazio-kostu txikiagoetatik probetxua ateratzea. Bereziki, Asian, Erdialdeko Amerikan eta, Berlingo Harresia erori ondoren, Ekialdeko Europan, non askoz permisiboagoak ziren eta diren lanaren eta ingurumenaren arloko legeriak.

Izan ere, erosten dugun arropa, marka ezagunek sinatua —horietako batzuk espainiarrak— hemendik kilometro askotara egiten da, giza eskubideak urratzen dituzten lan-baldintzetan. Hornidura-kate luzeek, erregulaziorik ezak eta azpikontratazio masiboak bide ematen die urraketa horiei.

Made in European Union markaren atzean, adibidez, ekialdeko eta hegoaldeko Europan kokatutako ehunka “maquila” ezkututzen da, non eskulan kualifikatua eta esperientziaduna erabiltzen den soldata miserableen truke. EBn bakarrik, ehungintzaren sektoreak 1,3 milioi pertsona inguru enplegatzen ditu, eta horietatik ia % 80 emakumeak dira, ezin konta ahala indarkeria jasaten dituztenak: miseriazko soldatak, gaixotasun edo amatasunagatiko baxarrik eza, asteko lanaldi ezinezkoak eta indarkeria fisikoa eta sexuala.

Euskadin, Eustaten arabera, pertsona bakoitzeko jantzien batez besteko gastua 614 € ingurukoa da urtean, hau da, pertsonako 20 kg inguru arropa eta 15 kg inguru hondakin: produkzio-kate global horien parte diren kontsumoa eta ingurumen-inpaktua.

FEMINIZACIÓN DE LA PRECARIEDAD EN LA INDUSTRIA TEXTIL EN EUROPA

Hasta mediados del siglo XX, la industria textil, uno de los motores de la economía mundial, se localizaba en los países ricos del norte global. A partir de la Segunda Guerra Mundial esta industria empezó a deslocalizarse hacia países periféricos, como consecuencia del abaratamiento del transporte y del desarrollo de las nuevas tecnologías de la comunicación. El objetivo, beneficiarse de los costes de fabricación menores especialmente en Asia, Centroamérica y, tras caer el Muro de Berlín, Europa del Este, donde diversas legislaciones laborales y medioambientales eran y son mucho más permisivas.

Tanto es así que la ropa que compramos y que firman marcas conocidas, algunas de ellas españolas, se confecciona a muchos kilómetros de aquí, y en condiciones laborales que vulneran los derechos humanos. Las largas cadenas de suministros, la falta de regulación y la subcontratación masiva facilitan estas vulneraciones.

Tras la marca *Made in European Union* se esconden, por ejemplo, cientos de “maquilas” ubicadas en Europa Oriental y del sur, en las que se emplea mano de obra cualificada y con experiencia a cambio de salarios miserables. Solo en la UE, el sector textil emplea cerca de 1,3 millones de personas, de las que casi el 80% son mujeres, que sufren innumerables violencias: salarios de miseria, ausencia de bajas por enfermedad o maternidad, jornadas semanales imposibles o violencia física y sexual.

En Euskadi, según Eustat, el gasto medio en artículos de vestir por persona ronda 614€ al año, alrededor de 20 kg de ropa y unos 15 kg de deshechos por persona: un consumo y un impacto ambiental que forman parte de estas mismas cadenas globales de producción.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Andrea de Vicente: Lan Harremanen Fakultateko irakaslea eta dekanordea / Profesora y vicedecana de la Facultad de Relaciones Laborales (EHU)

Sandra Ecurza: Modari aplikatutako iraunkortasunean aditua den irakaslea / Docente experta en sostenibilidad aplicada a la moda

21

LUTXI ETA ZUHAITZA (2026)

Lander Garro. Espainia / España. 81 min

🔊 euskara, gaztelania 🗣️ euskara, gaztelania

1987an, Pasaian, Guardia Zibilaren esku, egoera nahasian, hilik gertatu zen Lucía Urigoitia ETAkidearen istorioa kontatzen du dokumentalak. Urigoitiaren familiaren abokatuaren eta kasuko forentsearen bidez eraikitako narrazio honetan, auziak izan zituen kontraesanak eta zalantzak aletzen dira. Zuhaitzak, dokumental honetan, memoria oso baten premia ordezkatzeko du, ez ordea memoria bakarrarena.



Este documental relata la historia de la militante de ETA Lucía Urigoitia, fallecida en 1987 en Pasaia a manos de la Guardia Civil, en circunstancias confusas. Construida a partir del testimonio del abogado de la familia Urigoitia y del forense que intervino en el caso, la narración desgrana las contradicciones y las dudas que rodearon el proceso. En el documental el árbol se erige, frente a la idea de una memoria única, como símbolo de la necesidad de una memoria plena.

POLIZIA-JARDUKETEN AURKAKO PROZESU JUDIZIALAK: KONTAKETAREN AURREKO FROGA

2005ean, Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak printzipio multzo bat onetsi zuen inpunitatearen aurkako borrokaren bidez giza eskubideak babesteko, zigorrik ez ezartzea Estatuak urraketak ikertzeko eta hauen egileekiko neurriak hartzeko duen betebeharra ez betetzea dela ulertuta.

Nazioarteko zuzenbidearen esparru hori erreferentziatzen hartuta, Euskadik 12/2016 Legea dauka, uztailearen 28koa, motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Lege horrek Balorazio Batzorde bat sortu zuen, eta aurkeztu dituen bost txostenetan 238 biktima (1978-1999 denbora-tartean) berretsi ditu. Txostenetako batean (2024) zehazten du 9 biktimak tiroak jaso zituztela Estatuako Segurtasun Indar eta Kidegoetako edo talde parapolizialeko kideen aldetik, eta haietatik 6ri heriotza eragin zieten. Lucía Urigoitia 1987an hil zen, distantzia laburreko tiro baten ondorioz, Guardia Zibilarekin izandako ustezko liskar batean.

Inpunitatearen aurkako borrokaren funtsezko hiru alderdiak egia, justizia eta erreparazioa dira. Egia jakiteko eskubideari dagokionez, dimentsio indibidualean, NBERen Giza Eskubideen Batzordeak azpimarratu du giza eskubideen ageriko urraketek biktimei eta haien senideek duten eskubidea aitortu behar dela, hau da, egileen identitatea, kausak eta inguruabarrak ezagutu behar direla.

Baina egia jakiteko eskubideak ere badu dimentsio kolektibo bat (memoria kolektiboa), inpunitateari aurre egiteko betebeharrari buruzko adostasunetik soilik eraiki daitekeena.

PROCESOS JUDICIALES CONTRA ACTUACIONES POLICIALES: LA PRUEBA FRENTE AL RELATO

En el año 2005, la Comisión de Derechos Humanos de Naciones Unidas aprobó un conjunto de principios para la protección de los derechos humanos mediante la lucha contra la impunidad, entendida esta como una infracción de las obligaciones del Estado de investigar violaciones y adoptar medidas respecto a sus autores.

Tomando como referencia este marco del derecho internacional, Euskadi cuenta con la Ley 12/2016, de 28 de julio, de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política.

Esta ley creó una Comisión de Valoración que, en los cinco informes que ha presentado, confirma 238 víctimas (en el marco temporal 1978-1999). En uno de los informes (2024), especifica que 9 víctimas recibieron impactos de bala por parte de miembros de Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado o grupos parapoliciales, 6 de ellas con resultado de muerte. Son casos como el de Lucía Urigoitia, fallecida en 1987 por un disparo a corta distancia en un presunto enfrentamiento con la Guardia Civil.

Los tres aspectos fundamentales de la lucha contra la impunidad son la verdad, la justicia y la reparación. Respecto al derecho a la verdad, en su dimensión individual, la Comisión de Derechos Humanos de la ONU ha subrayado la necesidad de reconocer el derecho que asiste a las víctimas de violaciones manifiestas de los derechos humanos, así como a sus familias, de conocer la identidad de los autores, las causas y las circunstancias.

Pero el derecho a la verdad tiene también una dimensión colectiva (la memoria colectiva) que solo cabe construir desde el consenso sobre la obligación de combatir la impunidad.

asteartea / martes > apirilak 28 abril / 19:00

Victoria Eugenia Antzokia



L'ENFANT BÉLIER (2025)

Marta Bergman. Belgika-Kanada / Bélgica-Canadá. 94 min

🔊 arabiera, frantsesa, ingelesa 🇪🇺 euskara, gaztelania

Sara eta Adam bi urteko alabarekin iritsi dira Belgikara, Ingalaterrara bidaiatu ahal izateko itxaropenarekin. Ibilgailu baten atzealdean estututa eta ezkuturik, itxaropena baino, beldurra hasi da haiengan nagusitzen. Redouane polizia da, eta 20 urte daramatza lanbidean trafikatuak jazartzen. Gau horretan, bere patruila furgoneta geldiarazten saiatzean, migratzaileak garraiatzen ari den susmoak bultzatuta, dena aldatzen da...

MIGRAZIOA ETA MUGAKO POLIZIEN KONTROLAK SU-ARMEKIN

2018ko maiatzaren 17ko goizaldean, Belgikan, pertsonen trafikorako sare batek erabilitako kamioneta batek hogeita hamar bat migratzaile zeramatzan, Iraketik eta Siriatik etorriak, Belgikako poliziak geldiarazi zuenean. Jazarpenean, agente batek ibilgailuari tiro egin eta bala batek bere familiarekin batera zihoan bi urteko neska kurdu bat jo zuen, haren heriotza eraginez. Mawda Shawri zuen izena. 2021ean, auzitegi batek erruduntzat jo zuen polizia, nahi gabeko hilketagatik. Auziak polemika handia piztu zuen migrazioak kontrolatzeko operazioetan poliziak armak erabiltzearen inguruan.

Europako beste leku batzuetan ere dokumentatu dira migrazioak kontrolatzeko operazioei lotutako gertaera hilgarriak. Bulgarian, adibidez, mugazain batek migratzaile afganiar bat hil zuen 2015ean, Turkiako mugatik gertu jazarria izan ondoren. Evro ibaiaren mugan, Grezia eta Turkia artean, Amnesty Internationalek eta Human Rights Watchek, besteak beste, azken urteotan tiroak eta indarraren erabilera salatzen dituzte muga zeharkatzen saiatzen ari ziren pertsonen aurka. Berriki, 2025ean, ezkutuan pertsonak zeramatzan furgoneta bati egindako jazarpen polizial baten ondorioz, sei migratzaile hil ziren.

Espainiar estatuan, gertaera ezagunenetako bat Tarajaleko tragedia izan zen, Ceutan, 2014ko otsailean. Gutxienez 15 pertsona hil ziren kostaldera iristen saiatzen ari zirela, gurutzatzea eragozteko Guardia Zibileko agenteak istiluen kontrako materialaz baliatu bitartean. Auziak eztabaida bizia —oraindik bizirik dirauena— piztu zuen Europako mugetako kontroletan indarra erabiltzearen inguruan.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Ivania Cruz: Abokatua eta UNIDEHCeko bozeramailea / Abogada y portavoz de UNIDEHC (Unidad de Defensa de Derechos Humanos y Comunitarios) (El Salvador)

Javier Canivell Fradua: Zehar-Errefuxiatuekin erakundeko zuzendari nagusia / Director general de Zehar-Errefuxiatuekin

FILM LABUR / CORTOMETRAJE

Lehiaketatik kanpo
Fuera de concurso

3 días, 3 noches (2026)

Anuska Ariztimuño. Espainia / España. 7 min

🇪🇺 katalana, wolof 🇪🇺 euskara, gaztelania

Barcelonetako hondartzan egindako ekintza baten bidez, boluntario batzuk saiatu egiten dira Mediterraneoan pateran zeharkatzen duten pertsonen larruzalean jartzen. Soly Melaminek, bere ahotsaren eta bere kontakizunaren bidez, leku intimo eta sensorial batetik gidatu eta deskribatzen digu bidaia, istorio unibertsal bat bihurtzeraino.

A través de una acción llevada a cabo en la playa de la Barceloneta, varios voluntarios y voluntarias intentan ponerse en la piel de las personas que cruzan el Mediterráneo en patera. Soly Melamine, mediante su voz y su relato, nos guía y describe el viaje desde un lugar íntimo y sensorial, convirtiéndolo en una historia universal.

Sara y Adam llegaron a Bélgica con su hija de dos años con la esperanza de poder viajar a Inglaterra. Apretujados y escondidos en la parte trasera de un vehículo, el miedo comienza a imponerse a la esperanza. Redouane es policía desde hace 20 años y persigue a traficantes de personas. Esa noche, cuando la patrulla intenta detener la furgoneta sospechosa de transportar migrantes, todo cambia...

MIGRACIÓN Y CONTROLES FRONTERIZOS POLICIALES CON ARMAS DE FUEGO

En la madrugada del 17 de mayo de 2018, en Bélgica, una camioneta utilizada por una red de tráfico de personas transportaba a una treintena de migrantes procedentes de Irak y Siria, cuando fue interceptada por la policía belga. Durante la persecución, un agente disparó contra el vehículo y una bala alcanzó a una niña kurda de dos años que viajaba dentro con su familia, causándole la muerte. Se llamaba Mawda Shawri. En 2021, un tribunal declaró culpable a la policía por homicidio involuntario. El caso generó una gran polémica sobre el uso de armas por parte de la policía en operaciones de control migratorio.

En otros lugares de Europa también se han documentado incidentes mortales vinculados a operaciones de control migratorio. En Bulgaria, por ejemplo, un guardia fronterizo mató en 2015 a un migrante afgano durante una persecución cerca de la frontera con Turquía. En la frontera del río Evro, entre Grecia y Turquía, organizaciones como Amnistía Internacional y Human Rights Watch han denunciado en los últimos años disparos y uso de fuerza contra personas que intentaban cruzar la frontera. Más recientemente, en 2025, una persecución policial a una furgoneta que transportaba personas de forma clandestina terminó en un accidente que causó la muerte de seis migrantes.

En el Estado español, uno de los episodios más conocidos fue la tragedia del Tarajal, en Ceuta, en febrero de 2014, cuando al menos 15 personas murieron intentando llegar a la costa, mientras agentes de la Guardia Civil utilizaban material antidisturbios para impedir el cruce. El caso abrió un intenso debate, que sigue vivo, sobre el uso de la fuerza en el control de las fronteras europeas.

asteartea / martes > apirilak 28 abril / 19:00

Antzoki Zaharra / Teatro Principal

librea gonbidapenarekin / gratis con invitación

ALDAPA / LA CUESTA (2026)

Mafalda Saloio, Sergio Haro Films. Espainia / España. 75 min

gaztelania

Erretratu koral eta gizatiarra, zaintzen eta erresistitzen aritutako emakumeen, aldapak elkarrekin igotzen jarraitzen duten emakumeen memoria aldarrikatzen duena. Altza auzoan, adineko emakumeen talde batek haien bizitzak zeharkatu dituzten aldapak partekatzen dituzte: migratzea, familia zaintzea, sostengatzea eta ia beti ikusezinak diren lekuetatik komunitatea eraikitzea. **Aldapa** filmak memoria horiek egunerokotasunaren duintasunari buruzko erretratu hurbil bihurtzen ditu, zuzeneko testigantza dimensio performatibo batekin uztartuta. Gaur, José Manuel Varona Adineko Erretiratuen Elkarteko Gorputz eta Mugimendu Espresiboaren Tailerrean bilduta, migrazioak, lanak, adiskidetasunak eta eguneroko erresistentziak zeharkatutako historia horiek berreskuratzen dituzte haien ahotsek.

SOLASALDIA / COLOQUIO

Zuzendari eta parte-hartzaileekin / Con directores y participantes



Lehiaketatik kanpo / Fuera de concurso

Un retrato coral y humano que reivindica la memoria de quienes cuidaron, resistieron y siguen subiendo cuestas juntas. En el barrio de Altza, un grupo de mujeres mayores comparte las cuestas que han atravesado sus vidas: migrar, cuidar, sostener familias y construir comunidad desde lugares casi siempre invisibles. **Aldapa / La cuesta** transforma esas memorias en un retrato cercano sobre la dignidad de lo cotidiano, combinando el testimonio directo con una dimensión performativa. Hoy, reunidas en el Taller de Cuerpo y Movimiento Expresivo de la Asociación de Personas Mayores Jubiladas José Manuel Varona, sus voces recuperan esas historias atravesadas por migraciones, trabajo, amistad y resistencia cotidiana.

NIRE HISTORIA KONTATZEKO PARA CONTAR MI HISTORIA

ARGAZKI ERAKUSKETA //
EXPOSICIÓN FOTOGRÁFICA

1948-2023 THE PALESTINIAN
MUSEUM DIGITAL ARCHIVE

KOMISARIOA // COMISARIO: PABLO LLORCA

OKENDO KULTUR ETXEA
ARETO BERRIA // SALA NUEVA
MARTXOA 26 MARZO → EKAINA 06 JUNIO



ANTOLATZAILEAK / ORGANIZAN:



Human
Rights
Film
Network

Connecting
human rights
film festivals
around the world

film

is a powerful medium
It can touch and **inspire**
audiences: those who
can **make a difference.**

A growing numbers of film festivals dedicated to the promotion of human rights are organised around the world. They cooperate in the Human Rights Film Network.

Connect?

humanrightsfilmnetwork.org

GIRLS & GODS (2025)

Arash T. Riahi, Verena Soltiz. Austria-Suitza / Austria-Suiza.
104 min

🗣️ *ingeleza, frantsesa, alemana, errusiera*

🗑️ *euskara, gaztelania*

Feminismoa eta erlijioa batera egon daitezke? **Girls & Gods** beldurrik gabeko bidaia bat da, gai hau aztertzeko Inna Shevchenkoren sortu eta bultzatutako proiektua. Duela urte batzuk FEMENek botere-egitura patriarkalen aurka egindako protestetan buru izateagatik ezaguna, Shevchenko protestaren ordezkariaren alde agertu da, apaiz, iman, errabino, teologo eta beste emakume aktibista batzuekin. Elkarrekin, emakumeen eskubideen eta tradizio erlijiosoen arteko arrakalari heldu eta galde egiten diote beren buruari tradizio horiek genero-berdintasuna beren baitara ekarri ahal duten eta feminismoak leku sakratuetan bere lekua aurkitu.



© Golden Girls Film

¿Pueden coexistir el feminismo y la religión? **Girls & Gods** es un viaje sin miedo liderado por Inna Shevchenko, autora e impulsora del proyecto, para explorar esta cuestión. Conocida hace años por liderar las protestas de FEMEN contra las estructuras de poder patriarcales, Shevchenko ahora cambia la protesta por el diálogo, entrevistándose con sacerdotes, imanes, rabinos, teólogos y otras activistas. Juntas confrontan la brecha entre los derechos de las mujeres y la tradición religiosa, preguntándose si las religiones tradicionales pueden abrazar la igualdad de género y si el feminismo puede encontrar un lugar en los lugares sagrados.

ERLIJIOEN INTERPRETATIO PATRIARKALA

Berdintasunari eta erlijioari buruzko egungo eztabaidan, feminismoak hausnarketa egiten jardun du emakumeei erlijio maioritarioetan ematen zaien leku desorekatuari buruz. Hala, misoginia eta mendekotasun-moduak —sotilak edo ez hainbeste— seinatzen ditu analisi horrek, gizonen autoritate tradizionala indartzen duten rolen bidez normalizatuak.

Hausnarketa horien harira, kristau kolektibo feministek, besteak beste, hainbat herrialdetan presente dagoen Voices of Faithek eta Revuelta de Mujeres en la Iglesia espainiar estatuko kolektiboak, Euskadiko Emakumeen Aldarria bezalako ekimenekin batera, altxatu egin dute ahotsa. Horrekin, emakumeek Elizan jasaten dituzten injustizia- eta ikusezintasun-modu ugariak salatu nahi dituzte. Era berean, Eliza berdinkideek osatutako komunitate bihurtzea eskatzen dute, non emakumea eskubide osoko subjektutzat aitortua izango den.

Aldarrikapen horiek, gainera, erlijioa eta berdintasuna askotan termino bateraezin gisa planteatzen diren testuinguru batean kokatzen dira, eta horrek emakume fededun asko gatazka pertsonal eta kolektiboen aurrean kokatzen ditu beren erlijio-askatasuna baliatzeko orduan. Egoera horren aurrean, ahots askok aldarrikatzen dute, erlijioen barruan ere —edozein direla ere— bermatu egin behar direla emakumeen giza eskubideak eta autonomia.

Azkenik, komeni da galdetzea zein lekutatik hitz egiten dugun erlijioaz eta berdintasunaz eztabaidatzen dugunean. Gure gizarteetan, kredo desberdinetako emakume fededunak askotan epaitzen dira androzentrismoak eta arrazismoak zeharkatutako begiradetatik. Horrela ikusten da, adibidez, emakume musulmanei buruzko eztabaida batzuetan, non gorroto-diskurtsoak elikatzeke erabiltzen den haien eskubideen aldarrikapena.

INTERPRETACIÓN PATRIARCAL DE LAS RELIGIONES

En el debate contemporáneo sobre igualdad y religión, el feminismo ha venido reflexionando sobre el lugar desigual que se otorga a las mujeres en las religiones mayoritarias. Sus análisis señalan la misoginia y las formas de sometimiento —sutiles o no tanto— que se normalizan a través de roles que refuerzan la autoridad tradicional de los hombres.

Al hilo de estas reflexiones, colectivos cristianos feministas como Voices of Faith, presente en distintos países, o Revuelta de Mujeres en la Iglesia en el Estado español, junto a iniciativas como Emakumeen Aldarria en Euskadi, alzan la voz. Buscan denunciar las múltiples formas de injusticia e invisibilización que sufren las mujeres en la Iglesia. Asimismo, exigen que esta se convierta en una comunidad de iguales, donde la mujer sea reconocida como sujeto de pleno derecho.

Estas reivindicaciones se inscriben, además, en un contexto en el que la religión y la igualdad se plantean a menudo como términos incompatibles, lo que sitúa a muchas mujeres creyentes ante conflictos personales y colectivos a la hora de ejercer su libertad religiosa. Ante ello, muchas voces reclaman que, también dentro de las religiones sean cuales sean, se garanticen los derechos humanos y la autonomía de las mujeres.

Por último, conviene preguntarse desde qué lugar hablamos cuando debatimos sobre religión e igualdad. En nuestras sociedades, las mujeres creyentes de distintos credos son a menudo juzgadas desde miradas atravesadas por el androzentrismo y el racismo. Así se ve, por ejemplo, en algunos debates sobre las mujeres musulmanas, en los que el ejercicio de sus derechos se utiliza para alimentar discursos de odio.

asteazkena / miércoles > apirilak 29 abril / 19:00

Victoria Eugenia Antzokia



BLACK WATER (2025)

Natxo Leuza. Espainia / España. 82 min

🔊 bengalera, ingelesa 🗣️ euskara, gaztelania

2050. urtean Bangladeshek 220 milioi biztanle inguru izango ditu eta bere lurraldearen zati handi bat urpean geratuko da. Egoera horrek 10 eta 30 milioi biztanle arteko lekualdaketa behartu ekar lezake herrialdearen hegoaldeko kostaldetik, eta bangladeshtar asko "errefuxiatu klimatiko" gisa bertatik alde egitera behartu: mendearen erdialderako giza kolektibo hau mundu osoan 250 milioi pertsonak osatuko dutela aurreikusten da. Hortaz, gizadiaren historiako migrazio masibo handienaz ari gara, planeta mailan.

BANGLADESH, INJUSTIZIA KLIMATIKOAREN EPIZENTROAN

Bangladesh ahulen dagoen herrialdeetako bat da klima-aldaketaren eraginaren aurrean. Ganges, Brahmaputra eta Meghna ibaien deltan dago kokatuta, eta bere lurraldearen zati handi bat alubioi-lautada da, uholdeen, itsas mailaren igoeraren eta zikloien eraginpean dagoena. Horien artean, Remal zikloiak 2024ko maiatzean 800.000 pertsona ebakutzera behartu zuen, eta zeharo suntsituta utzi zituen arrantzari eta nekazaritzari lotutako bizibideak.

Egoera horrek behartu egin zuen jende asko hirietara lekualdatzera. Han, emakume ugarik, beren familiei diruz laguntzeko, herrialdean dauden ehungintzako 4.000 fabriketan esplotazio-baldintzetan lan egitera behartuta ikusi zuten beren burua.

